



EKOP

Euskadiko Elikagaien
Katearen Kontrol
Ofizialerako Plana
2026-2030



Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana **2026-2030**

2025eko azaroa, 1. bertsioa



EDUKIEN AURKIBIDEA

1.- Sarrera	3
2.- Plana prestatzeko, onartzeko eta eguneratzeko prozedura	4
3.- Helburu estrategikoak	5
4.- Agintari eskudunak	7
4.1.- Egitura eta antolaketa	7
4.2.- Koordinazioa	9
4.3.- Gardentasuna eta isilpekotasuna	11
4.4.- Independentzia eta interes-gatazkarik eza	12
4.5.- Prestakuntza	12
5.- Laguntza-tresnak	13
5.1.- Informatika-euskarriak	13
5.2.- Laborategiak	16
5.3.- Zereginak eskuordetzea	16
6.- Kontrol Ofizialeko Sistemaren Ebaluazioa	17
7.- Kontrol ofizialeko programak	18
8. Eraitzen urteko txostena	20
I. ERANSKINA. LABURTZAPENAK	21
II. ERANSKINA: ARAUDIA	22



1.- Sarrera

Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana, aurrerantzean, EKOP 2026-2030, estrategia global gisa garatu da, batetik, elikagaien eta pentsuen segurtasun- eta kalitate-arloetako arauzko eskakizunak betetzeko eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko elikagai eta pentsuen kontrol ofizialean ardura duten agintari guztien artean koordinazio-behar bereziei erantzuteko.

Nekazaritza eta Elikagai Politikari buruzko Legearen (17/2008 Legea) 101.2 artikulua aginduarekin bat etorritik, **EKOP 2026-2030** plana abian jartzea urrats handia da administrazioen arteko koordinazioan eta lankidetzan, nekazaritzako elikagaien katean egiten diren kontrol ofizial guztiak integratzeko. Horrek bide eman du hutsuneak detektatzeko eta kontrol ofizialerako dauden baliabideak optimizatzen.

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak (ELGNAZ-EJ) eta foru-aldundietan nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloetan eskumena duten sailek, ELIKA fundazioarekin elkarlanean, **EKOP 2026-2030** plana prestatu dute, zeinak nekazaritzaren, abeltzaintzaren, arrantzaren eta elikaduraren arloak barne hartzen baititu. Planak Europako lege-esparrua eta Administrazio Zentralak ezartzen dituen oinarriak errespetatzen ditu, baina Euskadiko elikagaien ekoizpen-sistemaren eta EAEko administrazioaren egituretara egokitzen da.

Zehazki, dokumentu honek honako arlo hauekin zerikusia duen legeria betetzen dela egiaztatzeko egindako kontrol ofizial eta jarduketa guztiak deskribatzen ditu: elikagaien eta pentsuen segurtasuna, animalia-osasuna, landaredi-osasuna, animalien ongizatea, giza kontsumorako ez diren animalien azpiproduktuen kudeaketa (GKEAA), elikagaien kalitatea, elikagaien eta nekazaritza ekologikoaren kalitate berezia. Plana prestatzeko lanean, 2026-2030erako Elikagaien Katearen Kontrolerako Plan Nazionalen ezarritako jarraibide orokorrak hartu dira kontuan (EKKPN).

Kontrol ofizialak aurretiaz arriskuak antzematera eta ezabatzerantz bideratzen dira; beraz, kontrolak zorrotz planifikatzen dira, bat-batekotasunerako lekuri uzten ez duen arrisku-analisi batean oinarrituta. Gainera, kalitate, eraginkortasun, efizientzia eta proportzionaltasuneko irizpideei jarraikiz egin behar dira, eta, aldi berean, behar besteko malgutasuna aplikatu behar da, higieneko, ingurumeneko eta animalien ongizateko arauen arabera tokiko produktuak eta kalitatekoak ekoizten eta merkaturatzen dituzten operadore txikiek biziraun eta sustatu ahal izateko.

EKOP plana bost urtekoa da (2026-2030), Europako estrategiekin eta Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako V. Plan Nazionalarekin bat etortzeko (EKKOPN). Honek denbora-esparru nahikoa ematen du beharraren xedeak finkatu eta haiei lehentasuna emateko, bai eta aurreikusitako jarduketa guztiak aurrera eramateko ere. Era berean, urte anitzeko eskemak aukera ematen du urtero jarduketak berrikusteko, segimendu-txostenen emaitzen arabera, bai eta gertatzen diren legegintza-aldaketen arabera edo kontuan izatea beharrezkotzat jotzen den beste edozein gertakariren arabera. Halaber, kontrol-jarduerak birprogramatu ditzake.

Beraz, **EKOP 2026-2030** kontrol ofizialak hobetzeko tresna bat da, eta nekazaritzako elikagaien katean tartean diren sektoreetan eta kontrol ofiziala egiteko eskumena duten administrazioetan du eragina.

2.- Plana prestatzeko, onartzeko eta eguneratzeko prozedura

EKOP 2026-2030 plana zabala eta integrala da, eta, hori dela eta, argiro zehaztuta daude koordinazio-bideak eta hura onartzeko eta ondoko aldaketetarako prozedurak.

Hori horrela, 2011tik, Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Planaren koordinazio-talde bat dago maila autonomikoan: Koordinazio Talde Horizontala (KTH). Taldea osatzen dute nekazaritzako elikagaien eremuan Euskadin kontrol-programak aplikatzeko ardura duten Zerbitzuetako Burutza postuak betetzen dituztenak. Haren eginkizuna, besteak beste, **EKOP**en kudeaketa koordinatua da (ikus 4.2 b).

Bestalde, Lantalde Teknikoak Kontrol Ofizialaren Programa prestatzeko eta eguneratzeko arduradunak dira, aplikazioa homogeneoa izateko autonomia-erkidego osoan, bai eta programa horien aplikazioaren bateratze-lanerako ere (ikus 4.2 c).

Koordinazio-organo horietan hartutako akordioak adostasunez hartutako akordio teknikoak dira; beraz, hasieran, ez dute izaera juridiko loteslerik. Hori dela eta, akordio horiek dagokion eskumen-eremuan erabaki-organo gorenari ematen zaizkio onartzeko. Aipatutako organoetan **EKOP** adostu eta onartu ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

EKOPen edukia urtero egokitu eta eguneratuko da, egunean jartzeko legegintzako, antolakuntzako eta administrazio-egituraketako aldaketak, halakorik balego, edo **EKOP**en urteko txostenaren emaitzen arabera, ezagutza zientifikoaren bilakaeraren arabera, sortzen ari diren gaixotasun berrien edo osasun-arazoaren arabera edo barneko auditorietan eta/edo misio komunitarioetan emandako gomendioen arabera.

EKOP eta bere aldaketak onartu ondoren, behar bezala jakinaraziko zaizkio Estatuko Administrazio Orokorrari, ezarritako bide formalen bidez, ondoren Europako Batzordera bidaltzeko. Era berean, behar bezalako publizitatea emango zaio, gardentasuna bermatzeko.



3.- Helburu estrategikoak

Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Planak **EKOP 2026-2030** honako helburu estrategiko hauek ditu, eta helburu horiek, aldi berean, zenbait jarduketa-ildotan banatzen dira:

1.HE.- Elikakatearen begi guztietako arriskua prebenitzea eta minimizatzea

Jarduketa-ildoak:

- Nekazaritza-elikagaien kateko operadoreak beren ekoizpenen segurtasunean eragina izan dezakeen edozein arrisku identifikatzeko eta kontrolatzeko gai izan daitezen sustatzea eta, horretarako, dagozkion sektoreetan Higiene eta Autokontrol Sistemen Jardunbide Egokien ezarpena sustatzea.
- Nekazaritza Elikagaien Katearen Segurtasunarekin zerikusia duten arazoak eraginkortasunez antzeman eta kudeatzea.

2.HE.- Elikagaien segurtasun gorena bermatzea euskal ekoizpen-sektorean, eta, beraz, osasun publikoaren babes gorena bermatzea

Jarduketa-ildoak:

- Operadoreek elikagaien eta pentsuen segurtasunari, landaredi-osasunari, animalien osasunari eta ongizateari, azpiproduktuen kudeaketari eta nekazaritzako elikagaien kalitateari buruzko araudia betetzen dutela bermatzea, kontrol ofizialen antolaketa eta kudeaketa egokiaren bidez.
- Arriskuetan oinarritutako irizpideak malgutasunez eta proportzionaltasunez aplikatzea, kontrol ofizialetan lehentasunak eta maiztasunak ezartzeko eta ahalik eta inpartzialtasun, gardentasun, trinkotasun eta kalitate handiena lortzen saiatzea.
- Kontrol ofizialen kalitatea ziurtatzea eta, horretarako, prozedura dokumentatuak aplikatzea eta kontrol-jarduera gainbegiratzea, eta ezarritako helburuak betetzen direla ziurtatzea, kontrol-sistemaren eraginkortasuna egiaztatuz eta barneko auditorien sistema bat mantenduz.
- Nekazaritzako elikagaien katearen kontrol ofizialean tartean diren agintari eskudun guztien artean koordinazioa eta lankidetzatza sustatzea.



3.HE.- EAEko nekazaritza-elikagaien ekoizpenaren industria- lehiakortasuna eta babesa sustaztea

Jarduketa-ildoak:

- Operadore ekonomikoek elikadura-segurtasuneko gaietan ezagutza egokia izan dezaten lortzea eta, horretarako, prestakuntza-planak abian jartzea, merkatuetan lehiakortasun-maila handiagoa emango diena.
- EAEko nekazaritza-elikagaien katearen kontrol ofizialeko sisteman konfiantza-maila areagotzea eta maila altuari eustea.
- Leialtasun-maila altuari eustea merkataritza-transakzioetan, elikagaien kalitateari eta segurtasunari dagokion guztian, eta merkatu-unitateari eusten laguntzea.

Gainera, **EKOP 2026-2030** honetan jasotzen diren kontrol ofizialeko programa bakoitzerako, lortu nahi diren helburu espezifikoak zehazten dira.

4.- Agintari eskudunak

4.1.- Egitura eta antolaketa

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboak ditu nekazaritzaren, abeltzaintzaren, barne-uretako arrantzaren, itsaski-bilketaren, akuikulturaren, ehizaren eta ibai- eta aintzira-arrantzaren esparruan, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren [3/1979 Lege Organikoaren](#) arabera. Dena dela, Espainiako Konstituzioaren 149.1.13 eta 16 artikuluetan xedatutakoa bete behar da.

Bere eskumenez baliatuz, eta bat eginez Estatuko Administrazio Nagusiak EAeri egiten dizkion transferentziak arautzen dituzten arauekin, EAeri dagokio [2017/625 Araudian](#) ezarritako helburuen eta kontrol ofizialen gaineko erantzukizuna hartzea; zehazki, nekazaritza-elikagaien esparruari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailari.

[27/1983 Legeak](#) ematen dituen eskumenen banaketa aintzat hartuz ([34/1985](#), [42/1985](#) eta [53/1985](#) dekretuek taxutzen dute lege hori; dekretuon bidez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei nekazaritza- eta abeltzaintza-zerbitzuak transferitzen zaizkie), foru-aldundiek, alde batetik, ekoizpen-bitartekoen eta ekoizpenen kalitatea, eta, bestetik, animalia-ekoizpenaren eta -osasunaren kalitatea kontrolatzen dute. Gainera, ekoizpen-bitartekoak hobetzeko eta kontrolatzeko eta animalien gaixotasunak prebenitzeko eta saneatzeko esku hartzen dute.

EAEko eskumenen banaketa berezia dela eta, hainbat agintaritza eskudunek dute eta [2017/625 Araudiak](#) aipatzen dituzten helburuak lortzeko eta kontrol ofizialak antolatzeko ardura, kasuan kasuko auzia zein den.

a) Eusko Jaurlaritza

[438/2024 Dekretuak](#), abenduaren 11koak, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, eta hura aldatzen duen abuztuaren 28ko [165/2025 Dekretuak](#) Eusko Jaurlaritzaren sail horren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dute. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzari emandako funtzio eta jarduera-arloetako batzuk honako hauek dira: elikagaien segurtasuna sustatzea; nekazaritza eta abeltzaintza sustatzea eta antolatzea; abeltzaintza, ehiza eta arrantza; nekazaritza-, arrantza- eta elikadura-industriak, eta nekazaritza-elikagaien kalitatearen kontrola.

EKOP 2026-2030 honi dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak honako egiteko hauek izango ditu:

- ✓ Estatuko oinarrizko araudia garatzea eta erkidegorako araudia egitea.
- ✓ Erkidegoko kontroletarako **EKOP** plana osatzea foru-aldundiekin batera, MAPA/AAEE koordinazio-ereduan oinarrituz.
- ✓ Foru-aldundiekin batera **EKOP** plana gauzatzeko ardura hartzea
- ✓ EAE MAPAn ordezkatzeko, erkidegoko kontrol-planei buruzko informazioa bidaltzea eta kanpoko administrazioekin (EB eta autonomia-erkidegoak) harremanetan egotea.
- ✓ Kontrolei buruzko datuak hartzea eta kudeatzea, eta MAPAra bidaltzea.

Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak eta, zehazki Abeltzaintza Ekoizpen eta Merkatuen Zerbitzuak, **EKOP** plana koordinatzen du Eusko Jaurlaritzaren barruan, foru-aldundiekin batera.

Gainera, kontrol-programak antolatzea, egituratzea, koordinatzea, gauzatzea, kontrolatzea eta ebaluatzea Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren hainbat zuzendaritzari dagokie, eta foru-aldundiek haiekin jarduten dute elkarlanean, euren eskumeneko esparruan.

Horrela, **Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak**, kasurako, erauzketa-arrantzaren, itsaski-bilketaren eta akuikulturaren esparruan koordinatu eta betearaziko ditu kontrol ofizialeko programak.

Bestalde, **Elikagai Kalitatearen eta Industrien Zuzendaritzak** elikagaien kalitatea kontrolatzeko programa koordinatu eta betearaziko du; halaber, agintaritza eskudun gisa dagozkion funtzioak beteko ditu jatorri geografiko bati lotutako kalitate bereizia (DOP eta IGP), Espezialitate Tradizional Bermatuak (ETG) eta Ekoizpen Ekologikoa kontrolatzeko sistemetan.

Azkenik, **Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari** dagokio nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloko kontrol ofizialeko programak koordinatzea. Zehazki, zuzendaritza horren barruan hiru zerbitzuek jarduten dute **EKOP** honetan:

- i. Nekazaritza Zerbitzua: foru-aldundiekin batera, nekazaritza-higienearekin eta -osasunarekin lotutako programak koordinatu eta gauzatzen ditu.
- ii. Elikagaien Segurtasun eta Trazabilitate Zerbitzua: foru-aldundiekin eta beste sail batzuekin batera, animalia-elikadurarekin lotutako kontrol ofizialeko programak koordinatu eta gauzatzen ditu, eta giza kontsumorako ez diren azpiproduktuen (SANDACH) kontrol ofiziala egiten du SANDACH establezimendu eta garraioetan.
- iii. Abeltzaintza Ekoizpen eta Merkatuen Zerbitzua: animalia-ongizatearekin eta animalien higiene eta osasunarekin zerikusia duten programak koordinatzen ditu.

b) Foru-aldundiak

Lurralde Historikoen [27/1983 Legeak](#), 7. artikuluko b atalean, xedatzen du **lurralde historikoei edo foru-aldundiei** dagokiela erakunde erkideek landare-ekoizpen eta - osasunaren eta animalia ekoizpen- eta - osasunaren esparruan ematen dituzten arauak garatzea eta betearaztea. Zehazkiago, lurralde historikoetako nekazaritza- eta abeltzaintza-arloko zuzendaritza eskudunek izango dute ardura hori. Honako foru-dekretu hauetan daude zehaztuta zuzendaritza horien egitura eta zereginak:

- ✓ [152/2023 Foru Dekretua](#), Diputatu Nagusiarena, ekainaren 30ekoa, Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegintzaldirako zehazten duena.
- ✓ [78/2024 Foru Dekretua](#), Diputatu Nagusiarena, ekainaren 28koa. Aldatzea diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretua, Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegintzaldirako zehazten duena.
- ✓ [169/2023 Foru Dekretua](#), uztailaren 6koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailaren egitura organikoa eta funtzionala arautzen da.
- ✓ [45/2024 Foru Dekretua](#), urriaren 1ekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdeko Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa.

EKOP 2026-2030 plan honi dagokionez, **nekazaritza- eta abeltzaintza-zerbitzuek** eta **mendietako zerbitzu eskudunek** esku hartzen dute planean, eta koordinazio-organoetan aktiboki parte hartzen dute eta beren eskumenekoak diren kontrolak egiten dituzte.

Zehazki, **abeltzaintzako osasunaz arduratzen diren zerbitzuek** animalia-ongizateari, abeltzaintza-ekoizpen primarioaren higieneari, animalia-elikadurari eta abeltzaintza-ustiategietako SANDACHEi dagozkien kontrolak egiten dituzte.

Bestalde, **nekazaritzako higieenez eta osasunaz arduratzen diren zerbitzuak** nekazaritza-ekoizpen primarioaren higieneari eta produktu fitosanitarioen erabilerari, produktu fitosanitarioen merkaturatzeari, landaredi-osasunari eta GAOei dagozkien kontrolak egiteaz arduratzen dira. Era berean, **landaredi- eta baso-osasunaz arduratzen** diren mendietako agintari eskudunak dira landaredi- eta baso-osasunaren arloko kontrolak gauzatzeko eskumena dutenak.

4.2.- Koordinazioa

Koordinazio eta plangintza xedeetarako, beharrezkoa da informazio-fluxu egokia ezartzea elika-kateari eragiten dioten kontrol mota guztietan tartean dauden agintari eskudunen artean. Horretarako, maila ezberdinetako zenbait koordinazio-organo daude. Honako hauek dira:

a) **Nekazaritza eta Elikadura Politikaren Batzordea**

Honako hauek dira batzordekideak: Eusko Jaurlaritzako Elikadura eta Landa Garapeneko sailburuordea, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendaria, eta Elikagaien Kalitate eta Sustapen zuzendaria, eta hiru foru-aldundietako bakoitzeko Nekazaritzako diputatuak.

Batzorde honetan Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikadura-politikak diseinatzen dira, nekazaritzaren eta elikaduraren esparruan jarduteko planak eta programak proposatzen dira, eta interesekotzat jotzen diren auziak eztabaidatzen dira (Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko [17/2008 Legea](#)).

b) **EKOP 2026-2030 Koordinatzeko Talde Horizontala (KTH)**

Lantalde hau EKOP 2026-2030 honetan jasotako programak ezartzeaz arduratzen diren unitateetako zerbitziburuek osatzen dute; zehazki, zerbitzu hauetakoez:

- ✓ AFaren Abeltzaintza Zerbitzua
- ✓ AFaren Nekazaritza Garapeneko Zerbitzua
- ✓ AFaren Mendien Zerbitzua
- ✓ BFaren Nekazaritza Zerbitzua
- ✓ BFaren Baso Zerbitzua
- ✓ GFaren Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzua
- ✓ GFaren Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzua
- ✓ GFaren Mendien Zerbitzua
- ✓ EJko EGA Saileko Arrantza Egituren Zerbitzua
- ✓ EJko EGA Saileko Kalitate Defentsarako eta Iruzur Kontrolerako Zerbitzua
- ✓ EJko EGA Saileko Elikagaien Segurtasun eta Trazabilitate Zerbitzua
- ✓ EJko EGA Saileko Nekazaritza Zerbitzua
- ✓ EJko EGA Saileko Abeltzaintza Ekoizpen eta Merkatuen Zerbitzua

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendaria izango da lantaldeko burua, eta haren ardura izango da **EKOP 2026-2030** erkidegoan koordinatzea. Elika Fundazioak lantaldeko idazkari tekniko jarduten du.

Lantalde horri dagozkio **EKOP 2026-2030** modu koordinatuan kudeatzeko beharrezko zeregin guztiak eta, zehazki:

- ✓ **EKOP** planaren kontrol ofizialerako programen esparru bateratua zehaztea.
- ✓ Lantalde teknikoen estrategia ezartzea.
- ✓ **EKOP 2026-2030** planaren inguruko dokumentazioa onestea: programak, prozedurak, kontrol-orriak, ikuskaritza-programa, etab.
- ✓ Prestakuntza-plan horizontalak definitzea.
- ✓ Kontrolak gainbegiratzeko eta kontrolen eraginkortasuna egiaztatzeko prozedurak zehaztea.
- ✓ Ikuskaritza-sistema definitzea eta egituratzea.
- ✓ **EKOP 2026-2030** planaren jarraipena egiteko urteko txostenen edukiak zehaztea.

Lantalde hau aldizka biltzen da, eta **EKOP 2026-2030** planari buruzko alderdiren bat adostu behar den bakoitzean.

c) Lantalde Teknikoak (LT)

Dokumentazioa garatzean eta kontrol-programak betearaztean ahalik eta koordinazio handiena lortzeko, Koordinazio Talde Horizontalak nahi beste lantalde sortzeko erabakia hartu ahaldu du, eta, lantalde horietan, programak gauzatzeko eskumena duten administrazioetako ordezkariak esku hartuko dute.

Oro har, kontrol-programek LT bana izango dute. Gainera, Abeltzaintza Arloa Koordinatzeko Lantalde bat egongo da, eta abeltzaintzaren esparrua ofizialki kontrolatzeko programak koordinatzeaz arduratuko da. Lantalde horretako kide dira foru-aldundietako hiru abeltzaintza-zuzendariak eta Eusko Jaurlaritzako Abeltzaintza Ekoizpen eta Merkatuen zerbitziburua. Beste kontrol-programa batzuei dagozkien gaiak lantzean (adibidez, animalia-elikadura, akuikultura eta SANDACH), tartean diren programen arduradunei dei egingo zaie bileretara joateko.

d) Landare Osasuna Koordinatzeko Batzorde Teknikoa

Batzorde honetako kideak dira Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Saileko eta hiru foru-aldundietako teknikariak eta Osasun Publikoko Saila. Batzorde honek pestiziden inguruko araudia garatu eta aplikatu beharko du, besteak beste (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuak [2006ko irailaren 12an emandako Agindua](#)).

e) Abeltzaintza Arrazen Koordinazio Batzordea

Batzorde hau [81/2015 Dekretuaren](#) bidez sortu zen, eta haren helburua da abeltzaintza-arrazen kontserbazioa, hobekuntza eta sustapena kudeatzeko eta antolatze eskumenak dituzten foru-administrazioen eta autonomikoaren arteko jarduketak koordinatzea, eta arrazen eta erregistratutako elkarrean eta erakunde aitortuen gaineko jarduera zooteknikoak aztertze, analizatze eta proposatzeko organo eskuduna da.

f) Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua (ENEK) zuzenbide publikoko erakunde bat da, eta [834/2007 Erregelamendua](#) kontrolatzeko agintaritza-funtzioak betetzen ditu. Kontseiluaren helburua, hain zuzen, erkidegoko erregelamenduan zehaztutako ekoizpen-, elaborazio-, inportazio- eta merkaturatze-arauak betetzen direla bermatzea da. Honako hauek dira kontseilukideak: ekoizpen-sektore ekologikoaren ordezkariak (ustiategiak, ekoizpen-, inportazio- eta/edo merkaturatze-enpresak, kontsumitzaileak) eta Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko ordezkariak eta hiru foru-aldundietako ordezkariak (Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoari buruzko [10/2006 Legea](#)).

g) Osasun Publikoarekiko Koordinazioa

EKOP 2026-2030 honen aplikazio-eremua nekazaritzako elikagaien katea da, baina giza osasunaren esparruarekin bat datozen lan-arloak detektatu dira. Hori dela eta, Osasun Sailarekin hainbat mailatan koordinatzeko zenbait organo eratu dira:

g.1) Osasun Publikoaren eta Nekazaritzaren Sailen arteko Batzordea

Honako hauek dira organo politiko honetako kide: Osasun sailburuordea, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuordea, Osasun Publikoko eta Drogamendekotasuneko zuzendaria, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendaria, Elikadura Politika eta Industria zuzendaria eta Elikako zuzendari/gerentea. Aldian-aldian biltzen da batzordea, euskal ekoizpenen Elikagai Segurtasunari eragiten dioten gaiei buruzko erabakiak hartzeko.

g.2) Osasun Publikoa eta Animalien Osasuna Koordinatzeko Batzorde Teknikoa

Honako hauek dira organo tekniko honetako kide: Animalia Osasunari eragiten dioten zerbitzuetako arduradunak (hiru foru-aldundietako Abeltzaintza Zerbitzuaren Buruzagitzak eta Abeltzaintza Ekoizpen eta Merkatuen Zerbitzuaren Buruzagitza), eta Osasun Publikoari eragiten dioten zerbitzuetako arduradunak (Osasun Programen Zerbitzuaren Buruzagitza eta Osasun Publikoaren Lurralde Zuzendariordetzen ordezkariak). Batzordea gutxienez urtean behin elkartzen da.

g.3) Osasun Publikoa eta Arrantza Koordinatzeko Batzorde Teknikoa

Arrantzari eta Akuikulturari (Arrantzaren Antolamendurako Zerbitzuaren Buruzagitza, Arrantza Ikuskapen Zerbitzua) eta Osasun Publikoari (Osasun Programen Zerbitzuaren Buruzagitza eta Osasun Publikoaren Lurralde Zuzendariordetzako ordezkariak) eragiten dioten zerbitzuetako buruak dira organo tekniko honetako kide. Gutxienez urtean behin elkartzen dira.

g.4) Produktu Zoosanitarioen Batzordea

Kide anitzeko aholku- eta koordinazio-organoa hau ([156/2001 Dekretua](#)) Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzako eta Farmazia Zuzendaritzako ordezkariak eta hiru foru-aldundietako Abeltzaintza Zerbitzuetako ordezkariak osatzen dute. Albaitaritzako sendagaiek eta pentsu sendagarriak EAEn dituzten ondorioei aurre egiteko bidezkoak diren proposamenak egiten ditu, besteak beste.

g.5) HIPN Batzorde Teknikoa

Hondakin Ikerketarako Plan Nazionala egiteaz, aztertzeaz eta ebaluatzeaz arduratzen den taldean erakunde hauetako teknikariak aritzen dira:

- ✓ Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza
- ✓ Osasun Sailaren Farmazia Zuzendaritza
- ✓ Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza
- ✓ Foru-aldundien Abeltzaintza Zerbitzuen Zuzendaritza.

4.3.- Gardentasuna eta isilpekotasuna

Kontrol-ofizialarekin lotutako lanak egiten dituzten agintaritzak eskudunek erabateko gardentasunaz jardungo dute, [2017/625 Erregelamenduaren](#) 11. artikulua xedatzen duen moduan. Era berean, kontrol-ofizialarekin lotutako lanak egiten dituztenek gardentasunez jardun beharko dute, [5/2015 Errege Dekretua](#) betez, eta, nolahi ere, isilpekotasun-printzipioa, lanbide-sekretua eta datu pertsonalak babesteko arauak beteko dituzte.

Horretarako, jendaurrean jarriko da, **EKOP 2026-2030** planean esku hartzen duten agintaritza eskudunen erakunde-webguneen bidez, egokitzat jotzen den informazio guztia. Modu horretan, herritarrek eskura izango dituzte agintaritza eskudunen kontrol-lanari buruzko datuak, elikagai edo pentsuek une jakin batean sor ditzaketen arriskuei buruzko informazioa eta arriskuok prebenitzeko, murrizteko edo ezabatzeko hartzen diren neurriak.

Isilpekotasunari dagokionez, kontrol-lanak egiten dituzten langileek isilpean gordeko dituzte gai sailkatuak edo legez zabaldu ezin diren beste batzuk, eta behar den diskrezioaz jokatu dute beren kargua dela-eta ezagutzen dituzten auzien inguruan. Ildo horretatik, lortutako informazioa ezingo dute euren edo beste batzuen onurarako erabili, ezta interes publikoaren kaltetan ere, Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren [5/2015 Errege Dekretuak](#) ezartzen duen bezala.

4.4.- Independentzia eta interes-gatazkarik eza

Kontrol ofizialak egiten dituzten langileak Administrazio Publikokoak izango dira, eta, beraz, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko [5/2015 Errege Dekretua](#) bete beharko dute. Estatutu horren arabera, langile publikoek honako printzipio hauek bete behar dituzte, langile publikoen jokabide-kodearen oinarri diren heinean: objektibotasuna, zuzentasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, isilpekotasuna, zerbitzu publikoaren gaineko ardura, gardentasuna, eredugarritasuna, zorrozatasuna, eskuragarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kulturaren eta ingurumenaren sustapena, eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunarekiko errespetua.

Alabaina, kontrol-programak Administrazio Publikoko langileek ezarri beharrean beste erakunde batzuei zereginak eskuordetuta ezartzen badira, erakundeok ere printzipio horiek bete beharko dituzte, zerbitzuak emategatik.

4.5.- Prestakuntza

Agintari eskudunek bermatu egin behar dute kontrol ofizialak gauzatzen dituen langile orok bere jarduketa-eremuko prestakuntza egokia jasotzen duela, [2017/625 Erregelamenduko](#) 5.4 artikuluan ezartzen denarekin bat. Prestakuntzaren gai-esparruek, gutxienez, Erregelamendu horren I. kapituluko II. eranskinean jasotakoak barne hartuko dituzte.

Kontrol-langileek egunean egon behar dute beren eskumen-esparruan. Hori dela eta, beharrezkoa den prestakuntza gehigarria jaso behar dute erregulariki beren funtzioak behar bezala bete eta kontrolak koherentziaz gauzatu ahal izateko gaikuntza izateko.

Plan honekin lotutako prestakuntzaren sistematika zehaztuta dago [EKOP 2026-2030erako Prestakuntza Plana](#) delakoan (Plana Koordinatzeko Talde Horizontalak onetsi zuen plan hori).

5.- Laguntza-tresnak

Kontrol Ofizialaren funtzionamenduari eusten eta laguntzen dioten tresnak honako hauek dira: ikuskatzaileak, nazioko eta autonomia-erkidegoetako informatika-aplikazioak eta datu-baseak, erreferentziazko laborategi nazionalak, errutina-kontrolletako laborategiak eta kontrol ofizialen zereginen bat eskuordetzan jaso duten organismoak.

5.1.- Informatika-euskarriak

Operadore guztiek inskripzio eguneratuak izan behar dituzte gauzatzen duten jardueraren administrazio-erregistroetan, egiaztagiriekin batera.

Autonomia-erkidegoan, EAEko Nekazaritza Ustiategiaren Erregistro (NUE) bat dago, eta helburu du nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-ustiategi guztiak inskribatzea; zehazki, lursail edo instalazioen zati handiena autonomia-erkidegoaren barruan dituztenenak ([203/2011 Dekretua](#)).

Kontrol ofizialen aplikazio-esparruetan, bestelako informazio-erregistro eta sistemak daude, hala Europar Batasunean nola estatuan eta autonomietan:

a) Abeltzaintzaren esparrua

Bizirik dauden abereen trazabilitatea bermatu ahal izateko, estatuan Animalien Trazabilitatearen Sistema Integrala (**SITRAN**) erabiltzen da: datu-base heterogeneo sakabanatua du, eta autonomia-erkidegoetan dauden erregistroak erregistro zentralizatu batean biltzen ditu. Oinarrizko sistema horrek, animalien trazabilitatea bermatzeaz gain, erraztu egiten du animalien osasuna eta laguntzen araubide jakin batzuk kontrolatzea; gainera, zaintza- eta alerta-sareen lagungarri da.

SITRANek hiru modulu nagusi ditu, eta hirurak daude elkarrekin lotuta:

- **REGA** (Abeltzaintza Ustiategiaren Erregistro Nagusia). Espainiako hogeit hamar animalia-espezie baino gehiagoko ustiategietako oinarrizko datuak jasotzen ditu ([479/2004 Errege Dekretua](#)).
- **REMO** (Abeltzaintza Intereseko Espezieen Mugimenduen Erregistroa). Informazioa biltzen du espezieen mugimenduen inguruan. Behiei dagokienez, banaka; gainerako espezieei dagokienez, sortaka ([728/2007 Errege Dekretua](#)).
- **RIIA** (Animalien Banakako Identifikazio Erregistroa). Ahalbidetu egiten du animaliak zalantzarik gabe identifikatzea, Animaliak Identifikatzeko Kode baten bidez; zehazki, horren bidez lortzen dira animaliar buruzko oinarrizko datuak, egon den herrialdeak eta bestelakoak, etab. Erregistro hori martxan dago behi, ardi, ahuntz eta ekidoentzat ([728/2007 Errege Dekretua](#)).

EAEri dagokionez, **SITRAN** autonomikoak (SITRAN EAE) foru-aldundien abeltzaintza-zerbitzuen datu-baseetako informaziotik edaten du; era berean, datu horiek abeltzainek berek emandakoak dituzte oinarri (altak eta bajak kudeatzean emandakoak, identifikazio-agiriak eta errolda-aitorpenak izapidetzean emandakoak, eta abar), baita haien eskumenak baliatuz lortutakoak ere (ikuskaritzak, kontrolak, mugimendu-agiriak ematea eta abar).

Datu-base horien egitura lurralde historikoaren arabera aldatzen den arren, SITRAN EAEk SITRAN zentralaren antzeko antolakuntza eta funtzionamendua ditu.

Estatuan, aurrekoekin lotutako beste erregistro bat ere badago: SIRENTRA (Animalia Bizien Garraiolaria Erregistro Informatika Sistema). Animaliak garraiatzeko baimenak emateko erabiltzen da ([751/2016 Errege Dekretua](#)).

Gainera, Osasuneko eta Albaitaritzako Alerta Sareak (**RASVE**) informazioa biltzen du animalien gaixotasunei buruz, eta bidea ematen du informazio epidemiologikoa kontsultatzeko, diagnostikoa egiteko, jarduketan eskuliburua kontsultatzeko edo gaixotasunen alerta-plana aztertzeko ([1440/2001 Errege Dekretua](#)).

Europar Batasunean, **TRACES** (Trade Control and Expert System) erabiltzen da. Animalien mugimenduak eta animalia-jatorriko produktuak kudeatzeko tresna da, Europar Batasunak erabiltzen duena bizirik dauden animalien eta animalia-produktuen inportazioa eta esportazioa kontrolatzeko, Europar Batasuneko mugen barnean zein kanpoan ([2019/1715 Betearazpen Erregelamendua](#)).

Azkenik, autonomian informazioa biltzeko beste sistema batzuk daude, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak kudeatutakoak, eta foru-aldundietako abeltzaintza-zerbitzuek betetakoak:

- Osasun-programen informazio-sistemak
- Kontrol ofizialen datu-baseak
- Hildako animalien bilketa kudeatzeko informazio-sistemak

b) Animalien Elikaduraren Esparrua

Kontrol-esparru honetan erabilitako erregistro nagusia ROAA (Animalien Elikaduraren Operadoreen Erregistroa) da, oinarrizko datuak jasotzen dituen gehigarriak, aurrenahasteak edo pentsu konposatuak sortzen edo merkaturatzen dituzten animalien elikaduraren sektoreko establezimenduen inguruan ([629/2019 Errege Dekretua](#)). Maila autonomikoan, **NEKAZER** aplikazioa erabiltzen da, erregistroa eta egiten diren ikuskapenak kudeatzeko.

Beste alde batetik, Estatuan erregistro horrek datu-basearen itxura hartzen du, Animalien Elikadurako Establezimenduen Erregistroko Informatika Sistema (**SILUM**) izeneko informatika-aplikazioaren barruan, zeina Ingurumen eta Landa eta Itsas Ingurune Ministerioaren mendekoa baita ([1471/2008 Errege Dekretua](#)).

c) SANDACH esparrua

Giza kontsumora bideratzen ez diren animalia-azpiproduktuen esparruan, SANDACHen Garraio Enpresen eta Establezimenduen Erregistroa erabiltzen da ([1528/2012 Errege Dekretua](#)) eta SANDACH Mugimenduen Erregistroa (**RMS**). Era berean, **TRACES** erabiltzen da, hirugarren herrialdeekin eta Europar Batasunaren barrukoekin mugimenduei buruzko informazioa jasotzeko.

Maila autonomikoan, **NEKAZER** aplikazioa erabiltzen da, ikuskapenak kudeatzeko.

d) Nekazaritzaren esparrua

Nekazaritzako kontrol ofizialen esparruan, honako erregistro hauek erabiltzen dira:

- Nekazaritza Ustiatgien Erregistro Autonomikoa (**REA**), zeina Nekazaritza eta Abeltzaintza Ustiatgien Informazio Sistemari integratuta baitago (**SIEX**) ([1054/2022 Errege Dekretua](#))
- **ROPO**: Defentsa Sanitarioko Ekoizle eta Operadoreen Erregistro Ofiziala ([1311/2012 Errege Dekretua](#)).
- **RETO**: Transakzio eta Operazioen Erregistro Elektronikoa ([1311/2012 Errege Dekretua](#)).



- **ROMA:** Nekazaritzako Makinen Erregistro Ofizialak ([448/2020 Errege Dekretua](#)).
- **REGITEAF:** Fitosanitarioak Aplikatzeko Ekipoen Ikuskapen Teknikoaren Estazioa ([1702/2011 Errege Dekretua](#)).
- Kimuen Ekoizpenerako Operadoreen Erregistroa ([379/2014 Errege Dekretua](#)).

e) Arrantzaren esparrua

Erauzketa-arrantzaren, itsaskilarien jardueraren eta akuikulturaren kontrol ofizialen esparrua da. Honako sistema hauek baliatzen dira:

- **CFPO:** Arrantza Flota Operatiboaren Errolda ([3/2001 Legea](#)).
- **EAEko Itsaskilarien Errolda.**
- **EAEko Akuikulturako Ustiategiaren Erregistroa.**

f) Elikagaien Kalitatearen Esparrua

Kontrol ofizialeko esparru honetan, honako informazio-sistema eta erregistro hauek erabiltzen dira:

- **NEIE:** EAEko Nekazaritza eta Elikagai Industrien Erregistroa ([422/2013 Dekretua](#)).
- **Ikuskaritzako datu-baseen erregistro informatizatua** (iruzurrak).

g) Elikagaien Kalitate Bereziaren esparrua (DOP/IGP/ETG)

Kontrol ofizialaren esparru honetan, EAEko Kontrol eta Ziurtatze Erakundearen Erregistroa erabiltzen da ([93/2011 Dekretua](#)).

h) Nekazaritza Ekoizpen Ekologikoaren Esparrua

Kontrol ofizialeko esparru honetan, Ekoizpen Ekologikoko Operadoreen Erregistroa erabiltzen da informazio- eta erregistro-sistema gisa ([10/2006 Legea](#)). Gainera, honako hauek erabiltzen dira:

- **TRACES:** animalien, animalia-jatorriko produktuen, pentsuen eta animalia-jatorrikoak ez diren elikagaien, landareen, hazien, landare-ugalketarako materialen eta nekazaritza ekologikoko produktuen merkaturak jakinarazteko, ziurtatzeko eta monitorizatzeko sistema informatikoa. Ekoizpen ekologikoko ziurtagiriak TRACESen ematen dira, bai eta inportazio/esportazioetarako behar diren ikuskapen-ziurtagiriak ere.
- **OFIS:** Agintari Eskudunek eta Europako Erkidegoko Batzordeak irregulartasun eta arau-hausteei buruzko informazioa elkarrekin trukatzeko plataforma.
- **REGOE:** Autonomia-erkidegoetako agintari eskudunek emandako informazioa jasotzen duen datu-basea. Aukera ematen du operadore ekologikoak identifikatzeko, haien jarduerarekin, kokapenaren eta ekoizpenaren arabera.
- **ECOSID:** Ugalketarako material organikoaren eta organiko bihurtzeko materialaren informazio- eta eskuragarritasun-sistema. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren [2018/848 Erregelamenduari](#) (Ekoizpen ekologikoari eta produktu ekologikoen etiketei buruzkoa) 26. artikuluko xedapenak betetzeko ezarria.

5.2.- Laborategiak

Elikagai Katearen Kontrol Ofizialerako Agintari Eskudunak izango dira kontrol ofizialean eta beste jarduera ofizial batzuetan hartutako laginen analisia egiteko baimena duten laborategiak izendatzeko arduradunak.

EKOP 2026-2030 planaren esparruan, Eusko Jaurlaritzan Nekazaritzaren eta Abeltzaintzaren inguruko eskumena duen Zuzendaritzaren titularrak izendatzen ditu laginak hartzeko eskatzen duten kontrol ofizialeko programa guztietarako laborategiak, Plana koordinatzen duen agintaria denez gero. Izendapena agindu edo ebazpen baten bidez egingo da, eta Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratuko du eta Estatuko Administrazio Orokorrari jakinaraziko zaio.

5.3.- Zereginak eskuordetzea

EAEko Kontrol Ofizialeko Agintaritzak Eskudunek kanpoko organismoen esku utz ditzakete zenbait jarduera: halakoetan, jardueren exekuzioa eskuordetuko da, [2017/625 Erregelamenduaren](#) III. Kapituluaren ezarritako baldintzetan. Baina inola ere ez da eskumena eskuordetuko.

Aukera hori baliatzen den kontrol-programetan, egintza hori dagokion programan jasoko da. Halaber, Batzordeari zereginen eskuordetzearen berri eman behar zaio, zeregina eskuordetzen duen agintaritzak eskudunari eta eskuordetza jasotzen duen organismoari buruzko informazioarekin, eta eskuordetutako kontrol-zereginen xehetasunarekin batera.

Aukera hori gauzatzen denean, koordinazio efektiboa eta eraginkorra lortu behar da agintaritzak eskudunaren eta zereginak eskuordetuta jaso dituen organismoaren artean. Gainera, kontrol-organismoen esku zeregin espezifikoak uzten dituzten agintari eskudunek eskuordetutako kontrol-organismoen auditoretza edo ikuskaritzak egingo dituzte, esleitutako eginkizunak zuzen betetzen ari direla ziurtatzeko.

6.- Kontrol Ofizialeko Sistemaren Ebaluazioa

Kontrol Ofizialeko Programak lan-prozedura dokumentatuen arabera gauzatzen dira. Prozedura horiek informazioa eta jarraibideak jasotzen dituzte kontrol ofizialak gauzatzen dituzten langileentzat, [2017/625 Erregelamenduko](#) 12. artikuluan ezarritakoarekin bat. Prozedura horien bidez, bermatu egiten da kontrol-jardueren kalitatea eta homogeneotasuna.

Beste alde batetik, Erregelamendu horretako 5.1a artikuluan ezartzen da derrigorrezkoa dela kontrol ofizialen efikazia eta egokitasuna bermatzeko prozedurak edo mekanismoak ezartzea.

Prozedura dokumentatuak betetzen direla egiaztatzeko, kontrol-jarduera **gainbegiratzeko lanak** egiten dira; zehazki, agiriak gainbegiratzen dira eta *in situ* gainbegiratzen dira ikuskatzaileek eginiko lanak. Koordinazio Talde Horizontalak onartutako [EKOP 2026-2030 planaren Kontrol Ofizialak eta Beste Jarduera Ofizial batzuk Gainbegiratzeko Prozeduran](#), gainbegiratzeko lan hori zelan egingo den zehazten da, bai eta agirien eta *in situ* gainbegiratzeko-ehunekoak ere kontrol-programa bakoitzerako eta urtero betetzen diren gainbegiratzeko-adierazleak.

Gainera, kontrolak koherenteak direla eta aurrez ezarritako helburuak erdiestea ahalbidetzen dutela bermatzeko, [EKOP 2026-2030 planean jasotako Kontrol Ofizialen Eraginkortasuna Egiaztatzeko Prozedura](#)ri jarraitzen zaio. Koordinazio Talde Horizontalak onartu du eta homogeneotasunez aplikatzen da kontrol ofizialeko programa guztietan. Prozedura honetan ere kontrol-sistemaren eraginkortasuna egiaztatzeko adierazleak zehazten dira, zeinak urtero betetzen baitira.

Azkenik, kontrol ofizialen eraginkortasuna eta aplika daitekeen araudiaren helburuak lortzeko egokitasuna bermatzeko, eta bat etorriz [2017/625 Erregelamenduko](#) 6. artikuluan eskatutakoarekin, kontrol ofizialeko programa guztietan barneko edo kanpoko auditoretzak egingo dira. Horiek, halaber, banaka aztertuko dira, eta gardentasun osoz gauzatu behar dira. Horretarako, Koordinazio Talde Horizontalak [EKOP 2026-2030 Planeko Auditoretza Programa](#) osatu eta adostu du. Urtero, kontrol-programei eginiko auditoretzen txosten bat prestatzen da, eta, hartan, aurkikuntza nagusiak eta dagozkion ekintza-planak zehazten dira.

7.- Kontrol ofizialeko programak

EKOP 2026-2030 planak barne hartzen ditu nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta elikadura, eta honako kontrol-programa hauek:

Arrantza

- I. Erauzketa Arrantza Primarioaren Mailako Ekoizpenaren Higienearen Kontrol Ofizialeko Programa.
- II. Akuikultura Primarioaren ekoizpenaren Higienearen eta Animalia Osasunaren Kontrol Ofizialeko Programa.

Nekazaritza

- III. Nekazaritzako Ekoizpen Primarioaren eta Produktu Fitosanitarioen Erabileraren Kontrol Ofizialeko Programa.
- IV. Produktu fitosanitarioen merkaturatzearen Kontrol Ofizialeko Programa.
- V. Landareen Osasunaren Kontrol Ofizialeko Programa.
- VI. Elikagaiak eta pentsuak ekoizteko genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) borondatez askatzeari buruzko Kontrol Ofizialeko Programa.
- VII. Ongarritzeko produktuetan SANDACH erabileraren Kontrol Ofizialeko Programa.

Abeltzaintza

- VIII. Abeltzaintza Ekoizpen Primarioaren Higienearen Kontrol Ofizialeko Programa.
- IX. Esne Gordinaren Ekoizpen Primarioaren Higienearen Kontrol Ofizialeko Programa.
- X. Abeltzaintza Ustiattegietako eta Animalien Garraioko Animalia Ongizatearen Kontrol Ofizialeko Programa.
- XI. Behi-, ardi- eta ahuntz-espezieko animaliak identifikatu eta erregistratzeko Kontrol Ofizialeko Programa.
- XII. Abeltzaintzako espezieetako ugalketa-produktuen establezimendu baimenduen Kontrol Ofizialeko Programa.
- XIII. Albaitaritzako sendagaien eta beste substantzia batzuen hondakinak ikertzeko Programa (PNIR).
- XIV. Europar Batasunaren barruan mugimenduak egiten dituzten establezimenduen Kontrol Ofizial Programa Bateratua.
 - o Eskortako hegaztien inkubazio-instalazioak
 - o Berrogeialdiko establezimenduak
 - o Konfinamendurako establezimenduak ([2016/429 Erreklamendua](#))
 - o Ungulatuak eta eskortako hegaztiak taldekatzeko eragiketetarako establezimenduak
 - o Kontrol-postuak ([2019/2035 Erregelamendu Delegatua](#))
- XV. Animalien Elikaduraren Kontrol Ofizialeko Programa.



XVI. SANDACH Kontrol Ofizialeko Programa SANDACH establezimendu eta garraioetan.

Elikagaien Kalitatea:

- XVII. Elikagaien Kalitatearen Kontrol Ofizialeko Programa.
- XVIII. Jatorri Geografiko bati lotutako Kalitate bereziaren eta merkaturatu aurretik Bermatutako Espezialitate Tradizionalen Kontrol Ofizialeko Programa.
- XIX. Ekoizpen Ekologikoaren Kontrol Ofizialeko Programa.

8. Emaizten urteko txostena

Urtero, txosten bat egiten da, urtean eginiko kontrol ofizialaren jarduera laburtzen duena, aurreko urtean egindako kontrol ofizialen emaitzei buruzko informazioa barne, [2017/625 Erregelamenduaren](#) 113. artikulua ezartzen duen legez.

Txosten horren helburua da, publikoari kontrol-jarduerei buruzko gardentasuna bermatzeaz gainera, kontrolen eraginkortasuna ebaluatzea eta elikadura-segurtasuna hobetzen duten eta araudia betetzen dela bermatzen duten etorkizuneko ekintzak planifikatzeko oinarri gisa balio izatea.

Txostenak jasotzen ditu **EKOP 2026-2030** planean jasotako programa guztien inguruan aurreko urtean eginiko kontrol ofizialen emaitzak, eta, zehazkiago, kontrol ofizialetan detektatu diren ez-betetze kasuen kopurua eta mota eta ez-betetze horietan hartutako neurriak, halakorik balego.

Urteko lehen hiruhilekoan prestatzeko, unitate koordinatzaileak kontrol ofizialeko programen arduradunei eskatuko die urteko txostenean jaso beharko den informazioa. Informazio horrekin, urteko txostena egingo da, eta hartan jasoko dira kontrol ofizialeko programa guztien emaitza xehatuak. Txosten hori amaitzean, kontrol ofizialeko programen koordinatzaileekin partekatuko da, txostena balioztatzeko eta prestatutako txostenean jaso litekeen informazioan zehaztasunik ezak zuzentzea bermatzeko.

EKOP 2026-2030 planean jasotako kontrol ofizialeko programa guztien koordinatzaile guztiek oniritzia eman ondoren, hura Eusko Jaurlaritzaren web-orrian argitaratuko da, non Nekazaritzako Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Planari buruzko informazio guztia jasotzen baita.



I. ERANSKINA. LABURTZAPENAK

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa

ELGNAS-EJ: Eusko Jaurlaritzaren Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila

AFA: Arabako Foru Aldundia

BFA: Bizkaiko Foru Aldundia

GFA: Gipuzkoako Foru Aldundia

JIB: Jatorri Izendapen Babestua

EKOP: Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialeko Plana

ELIKA: Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa

ENEK: Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua

ETB: Espezialitate Tradizional Bermatua

KTH: Koordinazio Talde Horizontala

LT: Lantalde Teknikoa

MAPA: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa

HE: Helburu Estrategikoa

GAO: Genetikoki Aldatutako Organismoak

PNCOCA: Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialeko Plan Nazionala

PNIR: Hondakinak Ikertzeko Plan Nazionala

SANDACH: Giza Kontsumorako ez diren Animalia Azpiproduktuak

EB: Europar Batasuna

II. ERANSKINA: ARAUDIA

Araudi Komunitarioa

- 178/2002 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2002ko urtarrilaren 28koa, Elikagaiei buruzko araudiaren printzipio eta betekizun orokorrak ezartzen dituen, Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritza sortzen duena eta elikagaien segurtasunari lotutako prozedurak ezartzen dituen.
- 852/2004 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa, Elikagaien higieneari buruzkoa.
- 853/2004 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa, Animalia-jatorriko elikagaien higiene-arau espezifikoak ezartzen dituen.
- 2074/2005 Erregelamendua, Batzordearena, 2005eko abenduaren 5koa, Produktu jakin batzuei aplikatu beharreko neurriak ezartzen dituen (853/2004 Araudian xedatutakoarekin bat etorriz) eta kontrol ofizialak antolatzeke jarraibideak ematen dituen (854/2004 eta 882/2004 erregelamenduetan xedatutakoarekin bat etorriz).
- 2006/677/EB Erabakia, Batzordearena, 2006ko irailaren 29koa, Ikuskaritzak 882/2004 Erregelamenduen arabera egiteko irizpideak ezartzeko jarraibideak ezartzen dituen.
- 2007/363/EB Erabakia, Batzordearena, 2007ko maiatzaren 21koa, estatu kideei Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 882/2004 Erregelamenduan aurreikusitako kontrol bakarreko, integratuko eta urte anitzeko plana sortzen laguntzeko jarraibideei buruzkoa.
- 2008/654/EB Erabakia, Batzordearena, 2008ko uztailaren 24koa, Estatu kideei Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 882/2004 Erregelamenduan aurreikusitako kontrol bakarreko, integratuko eta urte anitzeko planari buruzko urteko txostena sortzen laguntzeko jarraibideei buruzkoa.
- 142/2011 Erregelamendua, Batzordearena, 2011ko otsailaren 25koa, 1069/2009 Erregelamendua aplikatzen duena.
- 2017/625 Erregelamendua, 2017ko martxoaren 15koa, elikagai eta pentsuei buruzko legediaren eta animalien osasun eta ongizateari, landare-osasunari eta produktu fitosanitarioei buruzko arauen aplikazioa bermatzeko egiten diren kontrolen eta bestelako jardueren ofizialen ingurukoa.

Estatuko Araudia

- 14/1986 Lege Orokorra, 1986ko apirilaren 25koa, Osasunari buruzkoa.
- 8/2003 Legea, apirilaren 24koa, Animalien Osasunari buruzkoa.
- 1/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileak Defendatzeko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bateratua onesten duena.
- 17/2011 Legea, uztailaren 5koa, Elikagaien Segurtasunari eta Nutrizioari buruzkoa.

- 5/2015 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Langile Publikoaren Oinarrizko estatutuaren legearen testu bategina onartzen duena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa.
- 1086/2020 Errege Dekretua, abenduaren 9koa, Elikagaiak ekoizteko eta merkaturatzeko higiearen arloan Europar Batasunak emandako xedapenak aplikatzeko zenbait baldintza arautzen eta malgutzen dituen eta xedapen horien aplikazio-eremutik kanpo utzitako jarduerak arautzen dituena.
- 562/2025 Errege Dekretua, uztailaren 1ekoa, Nekazaritzako elikagaien katean eta hari lotutako eragiketetan egiten diren kontrolei eta beste jarduera ofizial batzuei buruzkoa.

EAEko araudia

- 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena.
- 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremanei buruzkoa, honako gai hauei dagokienez: landare eta animalien osasuna eta ekoizpena, eta lurralde historikoei nekazaritzaren arloko eskumenak eskualdatzea.
- 34/1985 Dekretua, martxoaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde partekatuen eskumenak Arabako Lurralde Historikoari eskualdatzeari buruzkoa, honako gai honi dagokionez: nekazaritza.
- 42/1985 Dekretua, martxoaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde partekatuen eskumenak Gipuzkoako Lurralde Historikoari eskualdatzeari buruzkoa, honako gai honi dagokionez: nekazaritza.
- 53/1985 Dekretua, martxoaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde partekatuen eskumenak Bizkaiko Lurralde Historikoari eskualdatzeari buruzkoa, honako gai honi dagokionez: nekazaritza.
- 10/2006 Legea, abenduaren 29koa, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoari buruzkoa.
- 1/2023 Legea, martxoaren 16koa, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzkoa.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa.

Foru Araudia

- 4/2023 Foru Dekretua, ekainaren 30ekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekoa.
- 169/2023 Foru Dekretua, uztailaren 6koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Foru Aldundiaren Natura Injuriaren eta Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala arautzen duena.



EKOP

Euskadiko Elikagaien
Katearen Kontrol
Ofizialerako Plana
2026-2030



- 152/2023 Foru Dekretua, Diputatu Nagusiarena, ekainaren 30ekoa, Arabako Foru. Aldundiaren sailak zehazten dituena 2023-2027 legegintzaldirako.
- 78/2024 Foru Dekretua, Diputatu Nagusiarena, ekainaren 28koa. Aldatzea diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretua, Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegintzaldirako zehazten duena.